


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Eguaztena / 2003ko apirilaren 16a / 538. zenbakia

A man wearing a blue and yellow floral patterned short-sleeved shirt, sunglasses, and a watch is talking on a mobile phone. He is also holding a large map. He is wearing plaid shorts and white sneakers. The background shows a paved path with trees and streetlights.

TURISMO BULEGOA ZABALIK
IRAILAREN 30ERA ARTE

BETIZU TALDEA: JAMEN, HILAREN 27AN/7 • ESKUBALOA: SENIOR TALDEKOEK MAILARI EUTSI DIOTE/8



AGIRRE

BRIGHTON

GALARRETA

GANTXEGI

LONBIDE

NINFA

ATREBENTZIAEZPADA/ Pozik oporrekin? Ze egingo dozu Aste Santuan?



UNAI MARTÍNEZ
11 urte



ENARA ALBERDI
10 urte



IMANOL BERROIA
12 urte



ASIER MANSO
12 urte



AINHOA LARRUSKAIN
12 urte



MIREN ORMAZABAL
12 urte

Oso pozik nago oporrekin; gaiñera, egun asko dauz-kagu. Ez naiz kanpora jungo. Hemen geldituko naiz, eta lagunekin ibilliko naiz, bizikletan, patinetian edo kalia, jolasten.

Pozik nago. Bigarren astian Parisera noia amakin eta ahizpakin. Lehenengo aldi-xa da juten naizena, eta lau egun pasatzera goiaz. Eta gogo haundixa daukat hara juteko.

Oso pozik nago; gaiñera, bi aste daukagu jai. Peñiscolarara jungo naiz gurasuekin. Han hondartzara jungo gara eguzkixa hartzera, eta jolastu be egingo dot lagunekin.

Oso pozik nago oporrekin. Soriara jungo naiz gurasuekin. Ibiltzera eta gauzak ikustera goiaz. Laguna Negra ikusiko dogu eta Urbion mendira be jungo gara.

Pozik nago oporrekin. Lagunekin jolastuko dot eta igerilekura be jungo naiz. Gurasuekin Oropesara noia. Han hondartzara jungo naiz eta eguzkixa hartuko dogu.

Oso pozik nago. Kanpora jungo naiz gurasuekin, Nojara. Han lagunekin jolastuko dot eta hondartzara be jungo naiz. Behin baiño gehixagotan jun naiz, kanpiñera.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK KANPOSANTUKO KAPERAREN EGOERA Kanposantu-ko kaperaren egoera dela-eta, emakume baten kexua jaso dugu aste honetan. Kaperaren egoera negargarrian dagoela adierazi digu eta benetan lotsagarria dela hildakoei azken agurra horren baldintza eskasetan eman behar izatea. Haren arabera, kaperak ez ditu baldintza minimoak ere betetzen eta dagokionari ardurak eskatu nahi dizkio./E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLAK /10

KULTURA /7

Turismo Bulegoa zabalik

Astelehenean ireki zuten Turismo Bulegoa. Lehen aldiz irailera arte egongo da irekita, eten barik.

Axen Garitano Gorlan garaile

Axen Garitano bergararrak irabazi zuen domekan Gorlan jokatuako txakur leren lasterketa.

36ko gerrako erakusketa

Gehiago inoiz ez, gerrako irudiak 1936-1939 izeneko erakusketa, udal-erakusketan, hilaren 29tik aurrera.

ASTEKODATUA

9

ZOKETATU BERRI DITUZTEN BABESTUTAKO ETXEA

Astelehenean, San Antonion eraikitzen diharduten babestutako bigarren etxebizitza blokeko bederatzi etxebizitza zoketatu zituzten. Etxebizitzok 257 lagun artean zoketatu zituzten.

BESTEKEESANA

“Agustin Arantzabalek hasiera partiduko bikaina egin zuen Real Madriden aurka. Partidu osoan

Arantzabal onena gogora ekarri zigun. Lehenbiziko gola eman zion Kovacevici eta bigarrean bikain konbinatu zuen De Pedrokekin. Realak partiduko partzela guztiak menderatu zituen eta posizioetan erakutsitako nagusitasun hori garaipenaren gakoa izan zen. Partidua hasi eta berehala etorrirako lehenbiziko golak min egin zion Madril eta nahiz eta jokalaririk bikainak izan, madrildarrek gauza gutxi egin ahal izan zuten Realekoen indarraren aurrean. Arantzabalek markaketa bikaina egin zion Figori eta portugaldarrak ez zuen bere joko egiterik izan. Ondoren Miñambresi ere ez zion ezer egiten. **IÑAKI IZQUIERDO/ Kazetaria 'El Diario Vasco'/02-00-00**

BERAIEKDIÑO/ Edurne Azuara



Ahazte Santua

Iritsi da Aste Santua, eta gainera badirudi momentu ezin hobean (ala ezin okerragoan?) iritsi dela. Motxila, praka motzak, bikiniak badaezpada ere, jertse lodia badaezpada ere, aterkitxo bat badaezpada ere... Azken egun hauetan beti presaka ibiltzen gara (normalean baino gehiago, esan nahi dut) eta batzuetan opor lasai batzuk hartu beharrean, badirudi oraindik ere gehiago estresatzen garela; gauza guztiak ez direla nire autoan sartzen, azkenean beti zuk nahi duzun lekura joaten garela, ez dudala izebaren etxera joan nahi... hori guztia autoko gorabeherak eta karabanak izakiengan duten eragina kontuan hartu gabe...

Baina tira! Azken finean egun hauek egunerokotasuna apurtzeko balio izaten dute, batzutan konturatu gabe aurkitzen dugun monotonia hori apurtzeko, deskonektatzeko, uste dut guztioi gusta-

tzen zaigula noizean behin guztiaz ahaztu eta opor batzuk hartzea; ez?

Aste Santua momentu ezin hobean iritsi dela diot, gaur egungo gertaera asko ahazteko ere balio izango duela uste dudalako. Bush eta bere tropek ere Aste Santua ospatu nahi zuten antza; Aznarrek ere opor hauek gustura hartuko ditu, Oropesa aldera bero bila joango da agian, deskonektatzera, eta ziur naiz gauetan lasai lo egin ahal izango duela gainera. Agian ahaztu egingo zaio baita ere milioika

pertsonak gerrate honen gainean zuten iritzia, agian ahaztu egingo zaio (dagoeneko ahaztu zaiola uste dut) *Prestige* oraindik ur azpian dagoela, eta ahaztu egingo zaio baita ere Euskal Herriko hizkuntza euskara dela eta inposatu nahi dizkigun legeak ez ditugula ulertzen.

Maiatzaren 25ean zerbait gogoratzeko gai izango ote den galdetzen diot neure buruari.

“Aznarrek ere oporrek gustura hartuko ditu, Oropesara bero bila joango da agian, deskonektatzera”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUAZTENA, 16
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUENA, 17
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

EGUAZTENA, 18
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

EGUENA, 19
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

EGUAZTENA, 20
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

EGUENA, 21
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

EGUAZTENA, 22
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emalleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kirodegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea. Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro	Labegarieta
Domekak:	Domekak: 11:00.
09:30, 12:30.	San Lorenzo
Zapatuak eta lanegunak:	Zapatuak: 20:00.
19:00.	Angiozar
Sierbak	Domekak: 11:30.
Lanegunak: 19:15.	Moja Zaharrak
Zapatuak:	Lanegunak: 09:00.
19:00.	Zapatuak: 11:00.
Domekak:	Mizpirualde
11:30, 13:00.	Lanegunak: 11:45.
Osintxu	Zapatuak: 17:30.
Domekak: 12:30.	Antzuola
Zapatuak: 19:00.	Domekak:
Elosu	09:00, 11:30.
Domekak: 10:30.	Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Ubera	Uzarraga
Domekak: 10:30.	Domekak: 10:00.
San Juan	Elgeta
Domekak: 11:00.	Lanegunak: 09:00.
Elorregi	Zapatuak: 19:30.
Domekak: 10:30.	Domekak: 12:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina (Sierbetan)
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.

San Pedro
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

JOSU CIFUENTESEN ALDEKO ZOKKETA

Josu Cifuentes gaztetxoaren aldeko zokketan 13.564, 13.546 eta 7.140 zerbakiak izan dira sarituak. Txartelen jabeek saski bana jasoko dute. Saritutakoek 649 38 51 86 zenbakira deitu dezakete.

MARISKADA

Bergara Aurrerak Erramuzapauan zozketatutako mariskada 2.374 zerbakiari tokatu zaio.

1965EAN JAIOTAKOAK

1965ean jaiotakoen afaria, apirilaren 26an, Txarran-txan, 22:00etan. Izenematea, Etxagi, Popis eta Pol-Pol tabernetan edo 629 56 29 25 (Karlos Etxaniz) telefono zenbakian. Egunean bertan Pol-Polen elkartuko dira, 19:00etan.

ODOL ATERATZEA

Hurrengo odol ateratzea apirilaren 30ean izango da, Seminarioko lokalean, 18:30ean.

IKASTAROAK KZGUNEAN

KZGuneak herritar guztientzako Informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastaroak antolatu dituzte. Argibideak, 943 76 73 24 telefono zenbakian.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO JARDUERAK
Arrizuri zabalik egongo da Txapliguko gaztetxoendako hildaren 23tik 26ra, 16:00etatik 20:00etara. Maiatzaren 10ean Arratera joango dira, gaua pasatzera; izenematea (30 euro), Jardunen, hildaren 5era arte. Bestalde, Txiskri-labi taldeak apirilaren 22tik 24ra Oriora irteera egingo du. Irteera, autobus geltokitik, 10:15ean.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildí okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Frontoi berria eraikitzen hasi ziren Toki-Ederren


Mariaren Lagundia Ikastetxeak lagatako lursailean, Toki-Ederren, frontoi berria eraikitzeko lanak hasi ziren. Mariaren Lagundiko kanposantu zahararen horma atzeko pareta moduan aprobetxatu zuten. Frontoia 24 metro luze eta bederatzi metro zabal izan behar zen.



BERTAKO BERRAK / Juan Martin Elexpuru

“Garitxua”

Garatxoa.
—Garitxuak kentzeko piku-esnia ei da onena.



HAUGIROA!

MINIMOA 3 °C
Eguena, 10

MAXIMOA 23 °C
Domeka, 13

ASTEKO EURIA (l/m²) 20,5 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 9	10 °C	6 °C	11,2 l/m²
Eguena, 10	16 °C	3 °C	1,9 l/m²
Egubakoitza, 11	12 °C	6 °C	15,8 l/m²
Zapatua, 12	16 °C	5 °C	2,3 l/m²
Domeka, 13	23 °C	8 °C	— l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOFILMAK

‘AMOR CON PREAVISO’

ZUZENDARIA: MARK LAWRENCE.
AKTOREAK: SANDRA BULLOCK, HUGH GRANT, DAVID HAIG.

HARIA. Sandra Bullock eta Hugh Grant ezagunek protagonizatutako komedia. Abokatu batek aberats harro bat gorrotatzen du, baina bien arteko harremana erabat aldatuko da bat-batean...

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, 19:30ean eta 22:30ean; eta zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

‘FRIDA’

ZUZENDARIA: JULIE TAYMOR. AKTOREAK: SALMA HAYEK, ALFRED MOLINA.

HARIA. Frida Kahlo margolari mexikarraren bizitza kontatzen da film honetan. Osasun arazoak izan zituen gaztetatik, eta, bestalde, Diego Rivera senarrarekin eta maitaleekin pasiozko harremanak izan zituen...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 19:30ean eta 22:30ean; eta domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean..

PUNTUAZIOA: ●●●●●


‘SOLDADOS DE SALAMINA’

ZUZENDARIA: DAVID TRUEBA. AKTOREAK: RAMON FONTSERÉ, ARIADNA GIL.

HARIA. Javier Cercas idazleak modu zoragarrian kontatu zuen Rafael Sánchez Mazasi Espainiako Gerran gertatutakoa, eta orain David Truebak pantailara eramane du istorio hura.

TOKIA ETA ORDUA. Astelehenean, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta martitzenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUA

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak ● Polainak: larruzkoak ● Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak ● Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak ● Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak ● Segurtasuneko oinetakoak ● Entzumen-babesa eta begi-babesa ● Soldatzaileendako aurpegirako babesa ● Maskarak ● Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak ● Hotzaren kontrako parkak ● PVCzko trajeak ● Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) ● Lanerako arropa ● Hotzaren kontrako txalekoak ● Eta abar...

JARDUN/ Aurreko eguenean batzar orokorra egin zuten, eta Olatz Olaso izendatu dute presidente


Hamazazpi urtetik gorako Gazte Taldea sendotzea da Jardunen aurtengo erronka

MONIKA BELASTEGI

Jardun elkarteko kideek batzar orokorra egin zuten eguenean. Besteak beste, iazko jardueren balorazioa egin eta aurtengo egitasmoen berri eman zuten. Horrekin batera, Zuzendaritza berria hautatu zuten; hala, elkarteko presidente berria Olatz Olaso izango da.

Iazko urtearen balorazioa positiboa izan dela azaldu zuten Jardungo kideek: "Orokorrean, proiektuak bete egin dira, eta antolatutako ekintzetan jende askok hartu du parte. Horrez gainera, iazko berritasunen artean aipagarriena Bertso Eskolaren sorrera da, eta 38 lagunek dihardute. Bestalde, bazkide kanpaina egin genuen eta 16 bazkide berri ditugu; horrenbestez, guztira 586 bazkide daude Jardun elkartearen gaur egun".

Aurtengo erronka nagusien artean hiru ditu elkarteak, besteak beste: batetik, Txiskrilabi taldean -12 eta 16 urte arteko gazteak- diharduten neska-mutiko nagusitxoak. Gazte Taldera jauzi egiteko urratsak lantzea. Izan ere, neska-mutiko horiek hartzaile izatetik eragileria izatera pasatzea da Jardunen helburua, eta Gazte Taldean txertatuz, gainerako taldeen gain zelanbaiteko ardura izatea; bestetik, gazteei begirako bazkide kanpaina berezia egingo du Jardunek; eta



Eider Arzelus, Nekane Gabilondo, Maider Arrizabalaga, Gurutze Ariznabarreta eta Eneritz Urbieta, batzar orokorrean, eguenean.

hirugarren erronka da irakurle kanpaina abiaraztea. Hain zuzen ere, kanpaina horren asmo nagusia da euskarazko irakurketa bul-tzatzea.

ALDAKETAK ZUZENDARITZAN

Bestalde, Zuzendaritza berria izendatu zuten batzar orokorre-

Euskarazko irakurtzeko kanpaina abiaraziko dute

an. Maider Arrizabalaga bi urtez elkartearen presidente izan ondoren, kargua utzi eta Olatz Olaso izango da presidente berria.

Horrez guztiaz gain, Zuzendaritzako beste hainbat izendapen berritu zituzten. Hala, honako hauek osatzen dute Zuzendaritza berria: lehendakariordea, Mai-

der Arrizabalaga; kultura arduraduna, Mikel Etxaniz; diruzaina, Eneritz Urbieta; mahaikideak, Iñaki Akizu eta Ana Carpintero; idazkaria, Gurutze Ariznabarreta; kultura dinamizatzailea, Eider Arzelus; Haur eta Gazte Saileko arduraduna, Nekane Gabilondo; eta errefortzueta-ko arduraduna, Amaia Epelde.

PAZKO ASTERAKO HAINBAT EKINTZA ANTOLATU DITUZTE

Txapligu taldeko umeendako -8 eta 11 urte bitarteko neska-mutikoak- hainbat ekitaldi antolatu ditu Jardun elkarteak Pazko aste-rako: apirilaren 23an, taldekako probak egingo dituzte herrian barrena; 24an, Zikinen Eguna egingo dute, eta aldatzeko arropa eramatea komeni dela esan dute antolatzaileek; 25ean, irteera egingo dute San Migelera; eta 26an, jolas kooperatiboak egingo dituzte. Esandako egunotan Arri-zuri jauregia 16:00etatik 20:00eta-ra egongo da zabalik, eta antola-tutako ekintzetan parte hartzeko hara joan besterik ez dute gazte-txoek.

Horrez guztiaz gainera, aste bukaerako irteera bat ere antolatu du euskara elkarteak Txapligu taldeko neska-mutikoen-dako. Maiatzaren 10ean eta 11n izango da, Arratera, eta izenematea maiatzaren 5era arte egongo da zabalik. Prezioa 30 eurokoa da eta Jardunen bulegoan eman behar da izena.

Astelehena ezkerro zabalik dago Turismo Bulegoa, irailera arte

MONIKA BELASTEGI

Astelehenean zabaldu zuten Turismo Bulegoa, eta halaxe egongo da irailaren 30era arte. Lehen aldia da Aste Santurako zabaldu eta udako oporren osterara arte zabalik egongo dena, eten barik.

Zerbitzu osoagoa emateko asmoz, Turismo Bulegoa egun gehiagotan zabalik edukitzeko ahalegina egiten dihardu Udalak urte bate-tik bestera. Hori horrela, aurt-en lehenengoz Aste Santurako zabal-du eta udako oporren osterara arte, irailaren 30era arte, ez dute bule-goia itxiko.

Iaz bezala, Bilboko Nis enpre-sa arduratuko da zerbitzua eskaintzeaz eta bi langilek jar-dungo dute bulegoan: Isabel López-ek eta Josune Galartzak.

Ohi bezala, eta informazio orokorra emateaz gain, bisitaldi-gidatuak ere eskainiko ditu bule-goak. Bisitaldiak, gainera, doan

izango dira eta ez dago aurrez ordua hartu beharrik. Oro har, ordu eta erdi inguruko bisitaldia izaten da, eta hirigune historiko-ko monumentuak erakutsi eta haien gainekoak azaltzen dituzte gidariek. Hala ere, bisitaldia moldatu egin daiteke, betiere hiri-gunera mugatuta.

Horrez guztiaz gain, herriko artearen eta historiaren gainean Udalak argitaratutako liburuak eros daitezke Turismo Bulegoan. Oroigarriei dagokienez, ez dira bulegoan saltzen, baina promoziorako erakusgai dituzte.

BULEGOAREN ORDUTEGIA IRAILAREN 30ERA BITARTEAN

Turismo Bulegoaren ordutegia honakoa da: astelehene-tik zapa-tura, 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik, 19:30era; domeketan eta jaiegunetan, 11:30etik 14:30era.

Bisitaldi gidatuak aurrez har-tu nahi izanez gero edo informa-zioa eskatzeko, telefono hau du Turismo Bulegoak: 943 77 91 28.



Aralar taldeak udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du

Zapatuan aurkeztu zuen Aralarrek hautetsien zerrenda. Zerrendaburua Ainhoa Larrañaga izango da; zerrendan bigarrena, Juan Martin Elexpuru; hirugarrena, Martin Etxeberria; eta laugarrena, Mikel Etxaniz. Zerrendako gainerakoen ordena zehaztu barik dagoen arren, honako hauek osatuko dute: Libe Txintxurretak, Rafa Sánchezek, Amaia Zabaletak, Iñigo Iñurrategik, Jose Angel Amasorrainek eta Nerea Lazpiurrek.



Hezkuntza sistema propioaren alde

Egubakoitzean egindako manifestazioarekin eman zioten amaiera hainbat lagunek Ikasle Abertzaleak taldeak astean barrena deitutako mobilizazioei.

Euskara, euskal kultura eta hezkuntza sistema propioa aldarrikatu dituzte gazteek. Era berean, hezkuntza sistema arrotzen inposaketa salatu zuten.

ETXEBIZITZA/ Besteak beste, Javier Madrazo sailburua eta Gallastegi alkatea egon ziren

Beste bederatzi etxebizitza sozial zozketatu dituzte

MONIKA BELASTEGI

Astelehen eguerdian egin zuten zozketa, osoko bilkuren aretoan, notarioaren aurrean. Zozketatutako bederatzi etxebizitzak San Antonion eraikitzen diharduten babestutako bigarren blokeari dagozkie. Blokeak 18 etxebizitza ditu, baina horietako bederatzi erabiliko dituzte botatako etxe zaharretako familiak kokatzeko.

257 herritarrek hartu zuten parte, eta bederatzi etxebizitzak honela banatuta zozketatu zituzten: bat, minusbaliatuendako; sei, 35 urtetik beherakoendako; eta bi, gainerakoendako.

Jaurlaritzako beste ordezkari batzuen artean, Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gailetako sailburua egon zen ekitaldian, eta Bergarako Udalak babestutako etxeen arloan egiten diharduen lana goraiatu zuen.



Zozketan erabilitako metodoa zenbakidun bolatxoena izan zen.

LABUR

Agustin Larrañaga izango da Bedelkar elkarteko presidente datozen bi urteotan

Agustin Larrañaga, Larrañaga gozotegikoa, da Bedelkar elkarteko presidente berria. Bergarako dendarien elkarteak martxoaren amaieran egin zuen batzar orokorra. Batzarrean, urteko balorazioa eta 2003rako dituzten asmoez jarduteaz gainera, presidente berria aukeratu zuten.

Hori horrela, Nerea lenteria dendako Ana Iztuetak kargu utzi eta Agustin Larrañagak hartu egin zuen datozen bi urteotarako.

Bergara Aurrerak mila sinaduratik gora jaso ditu, eta eskerrak ematen dizkie herritarrei

MONIKA BELASTEGI

Udal hauteskundeetara aurkezteko beharrezkoak zituen 501 sinadurak gairatu egin ditu Bergara Aurrerak. Milatik gora jaso ditu, eta eskerrak eman nahi dizkie herritarrei. Pozik daudela adierazi dute, "kolore eta pen-

tsamolde politiko askotariko herritarrek modu anonimoan sinatu dutelako". Horrekin batera, hautetsien zerrenda osatuta dutela gehitu dute: "Zerrendaburua Jesus Mari Garitano da, eta harekin batera herriko hainbat taldeetan lanean diharduten herritarrak daude zerrendan". Herri

Programaren ardatzak zehazteko batzarra egin dutela azaldu dute, eta ardatzok eskuan dituztela herriko eragileekin batzekotan direla. Aberri Egunari dago-kionez, Udalbiltzak Amairrera joateko egindako deialdiarekin bat egin dute eta leihotatik Ikurrina zintzilikatzeko eskatu dute.

AGOITZ

tapiz
denda

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

IRURAK MARGOAK

DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sinfasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

disdira

ileapaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
943 76 00 55

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

Taldeko kide Uxue Rodríguez bergararrak estreinakoz abestuko du taldearekin herrian

Betizu taldea Jam aretoan egongo da apirilaren 27an

MONIKA BELASTEGI

Betizu taldea ETBko Betizu programan irabazle izandako lau neska-mutikok osatzen dute; tartean Uxue Rodríguez 11 urteko bergararra dago. Txartelak salgai jarri dituzte dagoeneko.

Orain dela gutxi CDa kaleratu dute, eta martxoan barrena hainbat lekutan aurkeztu ondoren, Betizu taldea Bergaran ikusteko aukera izango dugu apirilaren 27an, Jam aretoan, 18:00etan.

Betizu taldea lau gaztetxok osatzen dute, Euskal Telebistako Betizu saioan irabazle suertatutako lagunek, hain justu. Lau horiek artean Bergarako neskatxo bat ere bada, Uxue Rodríguez. 11 urte ditu, eta, orain dela hila-bete BERRIGARAN egindako elkarrizketa baten esaten zenez, pozik eta ilusio handiarekin dihardu taldean.

SARRERAK SALGAI

Emanaldirako sarrerak zortzi euro balio du, eta Betizu Klube-ko bazkide izanez gero, zazpi euro



Uxue Rodríguez bergararra (eskuinaldean) da taldeko kideetako bat.

(aretora sartzeko Betizu Klube-ko txartela erakustea beharrezkoa izango da).

Nagusien kasuan, sarrerak hamar euro balio du. Baina sarre-

rak aurrez eskuratzeko aukera ere badago, honako tokietan, hain justu ere: Etxepare-Bilintx liburu denda, Etxagi tabernan eta Jam kafetegian.

Espainiako gerrako argazkien erakusketa udaletxean

MONIKA BELASTEGI

Gehiago inoiz ez, gerrako irudiak 1936-1939 izena du eta hilaren 29tik maiatzaren 11ra egongo da ikusgai. Sabino Arana Kultur Elkargoarena da eta 36ko gerrako 100 argazki eta lekukotasunak batzen ditu.

Espainiako gerrako Euskal Herriko argazkiekin egindako erakusketa da, eta izen bera daraman liburu bat du oinarrian, Leyre Arrietak eta Miren Barandiaranek Euskal Herriko eta Estatuko zenbait artxibotan eta agiritegitan egindako bilketa lanaren emaitza da. Horrela, erakusketan bilketa hartako argazki esanguratsuenen hautapena jasotzen da. Bestalde, Debagoieneko hildakoen argazkiak ere egongo dira ikusgai.

Argazkiak 100 inguru dira, eta denetariakoak: gerrako irudiak, atzeguardiako irudiak eta nork bere ideien alde borrokatu zutenenak.

Erakusketaren helburua da gure historiaren aldi latz bat irudien eta benetako lekukotasunen bitartez ezagutzera ematea.


Era berean, gerra aurreko historiaren gorabeherak ezagutzera eman nahi ditu erakusketak, eta horretarako ikus-entzuzkoak ere egongo da. Bestetik, erakusketaren osagarri gisa Agirre lehendakariaren, Dolores Ibaruriren eta Francoren ahotsak entzuteko aukera egongo da, baita bonbardaketek eta batailek sortzen duten zarata ere.

Erakusketa apirilaren 29tik maiatzaren 11ra arte egongo da ikusgai udaletxeko osoko bilkuren aretoan: astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan eta jaiegunetan, 18:00etatik 20:00etara. Irekiera ekitaldian Andoni Olabarri, Sabino Arana Kultur Elkargoko presidentea eta Gallastegi alkatea egongo dira. Ekitaldi berean Josuren Murgizuk Debagoiengan hil zirenen gaineko azalpenak emango ditu.



SABINO ARANA KULTUR ELKARGOIA

Jose Antonio Agirre Elgetan ateratako argazki baten (data zehaztu barik dago).



Txorimalo Lehiaketa arrakastatsua

Aurten ere talde ugari hartu dute parte Jardunek antolatutako Txorimalo Lehiaketan: 32k, hain justu ere. Erramu-zapatuko ferian egon ziren ikusgai 32 txorimaloak, eta sariak banatu zituzten: 12 eta 65 urte arteko lehenengo saria Jardungo Txiskrilabi taldeak jaso zuen (90 euro). 12 urtetik beherakoen sailean, Virginia Cresporen taldeak jaso zuen lehenengo saria (egun bateko bidaia) eta 65 urtetik gorakoetan, azkenik, Mizpirualde egoitzako taldeak jaso zuen lehenengo saria (90 euro). /M.B.

LABUR

Beart-ek gazteendako pintura eta marrazketa ikastaroak antolatu ditu uztaileko

Beart-ek, Bergarako Artisten Elkarteak, uztailean emango duen ikastaroan izena emateko epea zabaldu du. Ikastaroa 6 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoendako da eta pintura eta marrazketa landuko dituzte elkartearen egoitzan bertan eta kalean.

Ikastaroa uztailean izango da, astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 12:00etara. Izena emateko bi zenbaki hauetako batera dei daiteke: 653 71 53 82 (Mayra) edo 615 75 60 19 (Oihana).

AKORT

Ipin ezazu zure ARGAZKIA PUZZLE BATEAN

BERRIA!
Izan zaituz orijinala:
ZURE OPARIAK LATA BARRUAN

Enpresako OPARIAK egiteko, imajina dezakezun guztia: boligrafoak, agendak, aterkiak, ordenagailuendako alfonbratxo pertsonalizatuak...

Era guztietako kamisetak eta kirol-jertseak

Fotokopiak KOLORETAN

Mugertza 7, BERGARA. Tel.: 943 76 50 39

winterthur

Segurari Agentzia CB
Zurradero kalea 6 B
Tel./Faxa: 943 76 17 40
20570 Bergara

Aseguruak:
Automobila
Istripuak
Etxebizitza
Komertzioa
Erretiratze planak
Pentsio planak
Osasuna
Bizitza



Senior mailako taldeak Euskadiko Ligan jarraituko du hurrengo denboraldian.

ARTXIBOA

ESKUBALOIA

Galdu arren, mailari eutsi dio senior mailako mutilen eskubaloit taldeak

Trapaga eta Ormaiztegi izan dira mailaz jaitsi diren taldeak

EDU MENDIBIL

Domekan, Bilbon, Escolapios taldearen aurka 34-22 galdu arren, senior mailako mutilen eskubaloit taldeak mailari eutsi dio. Bergararrak 12. tokian sailkatu dira, eta Euskadiko Ligan jarraituko dute.

Bergarak 34-22 galdu zuen domekan Bilbon, baina Azkartzak Trapaga mendean hartu zuenez (25-23), azkenean Trapaga eta Ormaiztegi izan dira mailaz jaitsi direnak. Ozta-ozta izan bada ere, Bergarak mailari eusteko helburua lortu du ligako azken jardunaldian.

Domeka eguerdian Bilboko El Fango kiroldegian jokatutako partiduan Bergarak ezin izan zuen garaipena erdietsi. Partida oso parekatua izan zen. Lehia amaitzeko 10 minutu falta zirela, bergararrak aurretik ziren markagailuan, 27-28. Hala ere, han-

dik aurrera gauzak okertu egin zitzaizkien eta lau eta hutseko partziala eginda, bilbotarrek alde hartu zuten markagailuan.

Josetxo Muniategik Edu Orgaz entrenatzailea ordezkatu behar izan zuen domekan. Jokalari hauek ipini zituen jokoan:

Ekain Sotil, Jon Zangitu, Iban Orgaz (4 gol), Aitor Sánchez (1), Asier Mujika (6), Ibai Goenaga (7), Jon Mendizabal (1), Gorka Unamuno, Aitor Aldanondo (5), Iker Retolaza (1), Ruben Sánchez (2), Mikel Agirrezabal (2), Eugenio Cabo (3) eta Mikel Larrañaga.

Orain, Kopa Txapelketa

Aste Santuaren ostean Kopa Txapelketari ekingo diote Bergara KEko eskubaloit taldeek. Senior mailako mutilen eta nesken taldeek mailari eutsi diote eta orain Kopan txapelketa ona egitea izango da euren helburua. Mutilen taldeak ditu aukera handien aurrera egiteko. Gazte mailako mutilek eta kadete mailako neskek ere ilusioa daukate txapelketan maila ona azaltzeko. Nobedade nagusia kadete mailako mutilen taldea izango da. Ligan ez dute jokatu, baina Kopa Txapelketarako taldea osatu dute. Ruben Sánchez eta Mikel Agirrezabal izango dira entrenatzaileak. Lehenbiziko partiduak apirilaren azken asteburuan izango dira.

Gipuzkoa-Atalanta partidua, zapatuan, Agorrosinen

E.M.

Realak Aste Santuan antolatzen duen Gazte Mailako Txapelketaren barruan, Gipuzkoako Selekzioaren eta Atalanta talde italiarraren arteko partidua izango da zapatuan, hilaren 19an, Agorrosinen, 17:00etan.

Txapelketaren 19. aldia izango da aurtengoa eta nobedadeak Pachuca talde mexikarra eta Atalanta talde italiarra izango dira.

Bergararik gertu beste bi partidu izango dira: egubakoitzean, hilaren 18an, Athleticek eta Gipuzkoako Selekzioak neurtuko dituzte indarrak Arrasaten, Atxabalpen,; eta domekan, hilaren 20an, Barcelona eta Realak izango dira aurre aurre Oñatiko Azkoagain futbol zelaian. Partidu guztiak 17:00etan jokatuko dira. Txapelketako finala, berriz, astelehenean jokatuko dute, Anoeta estadioan.

Axen Garitanok irabazi zuen txakur leren lasterketa

E.M.

Axen Garitano bergararrak irabazi zuen domekan Gorlan jokatutako txakur leren lasterketa. Garitanok sei segundoren alde atera zion bigarren sailkatu zen Iker Ozkoidi nafarrari.

Partaideek 9,5 kilometroko ibilbidea egin behar zuten domekan, Gorlako kantinatik Trekutzera bitartean. Axen Garitanok 25 minutu eta 21 segundo behar izan zituen eta Iker Ozkoidi nafarrak 25 minutu eta 27 segundoko denbora markatu zuen Gorlako helmugan. Hirugarren postua Iban Uriondo arabarrak eskuratu zuen, 25 minutu eta 40 segundo-

ko denborarekin. Guztira 29 partaide izan ziren lehian.

Hala, Axen Garitanok lehen aldiz irabazi du Gorlan. Garitanok sei txakur erabili zituen, horietako bi Alaskatik ekarritakoak. Lasterketa bikaina egin zuen bergararrak eta zortzi txakur atera zituzten Ozkoidiri eta Uriondori nagusitu zitzairen.

ANTOLATZAILEAK, POZIK

Bergara Mushing taldeak antolatutako probak hamargarren aldia bete zuen domekan eta antolatzaileak pozik azaldu ziren proba amaitutakoan. Haien esanetan, sekula baino jende gehiago egon zen domekan Gorlan. Bestalde, Ozkoidiri Euskal Musher Onenaren saria eman zitoten.



Gorlan batutako ikusleek lasterketarekin gozatzeko aukera izan zuten.

MIKEL ALBERTO

OGIZUN

koop. elk.

okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

lbargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

KONDE

PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



POL-POL


Taberna

943 76 07 78. Bergara

Kirol Zerbitzuak antolatutako Igeriketa ikastaroak apirilaren 26tik

E.M.
Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatuta, apirilaren 26tik aurrera Igeriketa ikastaroak egongo dira Agorrosingo igerilekuan. Gazte-txoendako eta helduendako ikastaroak dira eta hainbat maila bereiztu dituzte: besteak beste, hasiera eta hobekuntza ikastaroak egiteko aukera egongo da. Adinaren arabera 3 eta 4 urteko umeendako, 5 eta 8 urte artekoendako, 9 eta 14 urte artekoendako eta 14 urtetik gorakoendako taldeak izango dira. Ordu-tegiari dagokionez, eskolak goizez edo arratsaldean izango dira, partaideen arabera. Hala, 3 eta 4 urteko umeendako ikastaroak hamar ordukoak izango dira eta gainerakoendakoak, 20 ordukoak. Parte hartu nahi dutenek Kirol Zerbitzura (943 77 91 67 telefono zenbakia) jo dezakete argibide eske. Kanpoko igerileku txikia ireki zutenetik antolatzen diren lehen ikastaroak izango dira.

ASTE SANTUAN, IGERILEKUA ITXITA
Bestalde, Aste Santua dela-eta, eguenean, egubakoitzean eta astelehenean itxita egongo da igerilekua. Zapatuan eta domekan zabalik egongo da, 09:00etatik 19:00etara.



Kanpoko igerileku txikian egingo diren lehen ikastaroak izango dira.

Gimnasta gaztetxoek emaitza onak lortu zituzten Azkoitian

E.M.
Ariznoa taldeko gimnastek emaitza onak lortu zituzten Azkoitian jokaturako B mailako Eskola Arteko Txapelketan. Hala, infantil mailako Mariaren Lagundiko taldeak lehen postua eskuratu zuen eta kadete mailan Ipintzako taldea izan zen irabazlea. Banakako sailkapenean, berriz, infantil mailan Eider Carrasco hirugarren tokian sailkatu zen eta

Oihane Agirrek bosgarren postua eskuratu zuen.

Kadete mailan, berriz, Virginia Odriozolak eta Maddalen Legorburuk puntuazio bera lortu zuten eta biak bigarren postuan sailkatu ziren.

ARTEAGA ETA GALLEGO

Bestalde, Irati Arteagak eta Sarai Gallegok Gipuzkoako Txapelketako finala izango dute maiatzaren erdialdean.

KARATEA

Markel Larrañagak Espainiako Txapelketan hartuko du parte apirilaren 26an

Markel Larrañagak apirileko azken aste bukaeran Eivissan (Ibiza) jokaturako den Espainiako Karate Txapelketan hartuko du parte. Markelek Euskadiko gazte mailako selekzioan dihardu eta Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak irabazi ditu aurretik.

ARETO FUTBOLA

Aste Santuan ez dute Areto Futbol Txapelketako partidurik jokaturiko

Aste Santuko oporrak direla eta, aste bukaera honetan (apirilak 19 eta 20) ez da txapelketako partidurik jokaturiko Labegarietako kiroldegian. Datorren aste bukaeran, berriz, Kopako eta Ligako partidurak jokaturiko dira.

Eskaintza harrygarria.

IRALA
VIDEOMATIC Plus Bideoak

Simon Arrieta 4. Tel.: 943 76 21 81. Faxe: 943 76 73 33.
video_irala@infonegocio.es

DVD VHS




BERGARA KIROL ELKARTEKO ZOZKETA

Clemente Rodrigok irabazi du Bergara Kirol Elkarteak martxoan egindako zozketa. Clementek Labegaraietako kiroldegiko tabernan erosi zuen saritutako txartela (0072 zenbakia), eta saski eder bat eta Zubikua jantzi dendan erabiltzeko erosketa bonoa eskuratu ditu. Argazkian, Clemente (eskuman) saria jasotzen Piti Unamuno Bergara KEko Zuzendari-zako kidearen eskutik. Apirilean saskia eta Xamartin kirol dendarako erosketa bonoa zozketatuko ditu Bergara KEk.



BERGARARRAK ILE APAINZAILAILEEN ERAKUSTALDIAN

Amparo ile apaindegiko Iratxe eta Maider Azkarate ahizpek erakustaldia egin zuten aurreko astean Donostian jokaturako Ile apaintzaileen Gipuzkoako Txapelketan. Iratxek eta Maiderrek Bergarako modeloak eraman zituzten Donostiara eta guztiak pozik etorri ziren han egindako lanarekin. Aurten erakusketan parte hartu badute ere, iaz Maider Azkaratek lehen postua lortu zuen txapelketan.



IRAKURLE GAZTETXOEI SARIA

Apirilaren 23ko Liburuaren Eguna dela-eta, Udal Liburutegiak Marrazki Lehiaketa antolatu du herriko gaztetxoaren artean, eta egubakoitzean liburu bana eman zien marrazki onenen egileei. Lan horiek guztiak Udal Liburutegian daude ikusgai. Era berean, Liburuaren Egunean San Martin plazan liburutegiko materiala ikusgai jarriko dute eta apirilaren 22tik 27ra errepikatutako liburuak doan eskuratzeko aukera egongo da.

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ezpeleta

Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Ganbara

TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75




IRRINTZI
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

ARANZADI IKASTOLA

BATXILERGORAKO

AURREMATRIKULAZIOA

maiatzaren 2tik 9ra

BATXILERGO ZIENTIFIKOA
Osasun zientziak
Zientifiko-teknikoa

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIETAKO BATXILERGOA

- Kultura eta aisialdirako jarduera osagarriak
- Batxilergo ondoko ikasketa guztietarako prestakuntza
- Konfiantzan oinarritutako harremanak
- Ikastolaren kudeaketan ikasleen parte-hartzea
- Euskaraz bizi izaten aitzindari
- Ikasleentzako kultura digital egokia



ARANZADI
IKASTOLA

HERRI ONURAKO
IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak
eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez!
Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**


*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAN agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA
Naroa Mujika
Apirilaren 16an, 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Jabi Sánchez
Apirilaren 30ean, 28 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



BERGARA
Ibai Agirrezabal
Apirilaren 12an, 3 urte.
Zorionak! Ainhoa,
Maitane eta familiakoak.



BERGARA
Leire Sahvillo
Apirilaren 11n, 11 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Irati Sanz
Apirilaren 28an, 6 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Ibai.



BERGARA
Mikel Zubizarreta
Apirilaren 23an, 3 urte.
Urte askotarako!
Garazi eta etxeakoak.



BERGARA
Jose Luis Telleria
Apirilaren 18an, 29 urte.
Urte askotarako!
Yolanda eta koadrilakoak.



BERGARA
Joseba Vicente
Apirilaren 18an, 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Ane.



BERGARA
Jone Eguren
Apirilaren 26an, 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak; bereziki, Irati.



BERGARA
Irati Eguren
Maiatzaren 4an, 6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak; bereziki, Jone.



BERGARA
Leire Arietaleanizbeaskoa
19an, urtebete. Zorionak!
Etxekoak; bereziki, Mireia.



BERGARA
Oxel Erostarbe
Apirilaren 12an, 24 urte.
Urte askotarako!
Lagunak.



**APIRILAREN 4KO APATXIKO
ERANTZUN ZUZENAK:**

Letra-zopako hitzak esaldixetan:

- | | | |
|-----------------------|-----------------------|------------|
| 1: zaittu | 5: nekatuta/kantsauta | 9: emon |
| 2: dotsu | 6: nekatuta/kantsauta | 10: jo |
| 3: urratua/bihurritua | 7: ukabilladia | 11: dot |
| 4: urratua/bihurritua | 8: burukua | 12: dotsat |

AITA-AMEK EGITTEKO ARIKETAK:

Esaldi zuzenak:

- A. A zelako moratoia urten dotsun.
B. A zelako beltzunia urten dotsun.
- A. Ostiko galanta emon zostan.
B. Patada galanta emon zostan.
- A. Buruhandi esatiagaittik jo egin dost.
B. Buruhandi esatiagaittik jo egin nau.
- A. Hartutako kolpiarekin hintxauta dauka eskumuturra.
B. Hartutako kolpiarekin haundittuta dauka eskumuturra.
- A. Aittak emon zostan beiarroundokuakin zihero formaldu naiz.
B. Aittak jo zostan beiarroundokuakin zihero formaldu naiz.
- A. Harri batekin estropozu egin eta gero orkatillan esginzia daukat.
B. Harri batekin estropozu egin eta gero orkatillan bihurritua daukat.
- A. Kovacevichi egundoko ostikadak emoten dotse.
B. Kovacevichi egundoko ostikadak joten dotse.

Zorionak Amaia eta Josu!

Haiei egokitu zaizkie 'Apatxi'-ko 5. aleko lehen sariak!

Apatxiko bosgarren aleko sariketan

**Amaia San Torcuatok eta Josu Gorosabelek irabazi dituzte bi sari nagusiak.
Amaiak Gipuzkoa zure esku mahai-jokua eta Josuk Badakit mahai-jokua eskuratu dute.**

Horrez gain,

Unai Garmendia, Asier Lazpiur, Jone Eguren, Maika Gallastegi eta Lara Alonso ikasleek Ume txikiendako kantu eta jolasak liburuxka bana jasoko dute.

**APATXI-REN HURRENGO ALEA, MAIATZ BUKAERAN BERRIGARAN!
Beraz, adi egon! Bitartean, ondo pasa!**

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Boluko elkarte hau 1991ko apirilaren 15ean sortu zuten.
Zein da elkartearen izena?

GALDEDEBALDE

1.

Jardun elkarteak presidente berria izendatu berri du. Zein?

- A/ Olatz Olaso.
- B/ Maider Arrizabalaga.
- C/ Nekane Gabilondo.

2.

Nor da Sabino Arana Kultur Elkargoko presidentea?

- A/ Andoni Olabari.
- B/ Josuren Murgizu.
- C/ Koldo Andia.

3.

Zein geratu zen bigarren Goriako txakur leren lasterketan, Axen Garitanoren atzetik?

- A/ Iban Uriondo.
- B/ Iker Ozkoidi.
- C/ Peter Post.

PINTOREBERGARARRAKGAUR


Iñaki Iturbe

EDU MENDIBIL

Ibilbide profesionala diseinu grafikora bideratu du Iñaki Iturbek (Bergara, 1972), eta azkenaldian pintura albo batera lagata duela diosku. Hala ere, Kutxak antolatutako Artista Berrien Lehiaketan lau marrazkiko serie bat nabarmendu zioten 2001ean. Iñakik hauxe dio: "Txikitatik marrazteko eta sortzeko gogo hori izan dut eta oraingo lanarekin horri eutsi ahal izan diot. Orain ordenagailua erabiltzen dut, baina pintzela moduko beste tresna bat da; baliabide eta erraztasun handiak ematen ditu, gainera". Iñakik Leioako Arte Ederretako fakultatean ikasi zuen, eta Diseinu espezialitatea egin zuen: "Marrazkirako joera izan dut beti, eta diseinuak badauka nolabaiteko lotura marrazketarekin. Formatu handiko marrazkiak egin izan ditut, batez ere; margolanak baino gehiago".

Erretratuak eta paisaiak landu izan ditu: "Paisaiak baino gehiago, autoekin lotutako lekuak, autoak izugarri gustatzen zaizkit-eta". Besteak beste, Oswald Oberhuber, Zoran Music, Richard Serra edo Edward Hopper ditu gustuko.

"Ordenagailua, pintzela bezala, tresna da; erraztasun handiak ematen ditu, gainera"



E.M.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

EDURNE ALDANArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Edurne! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: San Prudentzio / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-A.



Super BMn emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Mistol garbigarria

1,5 litroko botila

1,10€

183 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



EDEL TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka, 8 BERGARA 943 76 53 12

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

Kontuola

ANTZUOLA / Eguaztena / 2003ko apirilaren 16a / 87. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Udalak 2.771.761 euroko aurrekontua onartu du

AINTZANE IRIZAR

Joan den asteko martitzenean, apirilaren 8an, ezohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak, aurtengo aurrekontua onartzeko. Eta aho batez onartu zuten aurrekontua; hala, denetara 2.771.761 euroko aurrekontua izango du Antzuolako Udalak 2003rako.

Iazkoarekin alderatuta, %20,4 igo da udal aurrekontua. 2.300.735 euroko aurrekontua izan zuen Antzuolako Udalak iaz.

Aipatzekoa da iazko aurrekontuan gastuak baino sarrera gehiago zehaztu zituztela, horrela, zor publikoa estaltzeko. Eta aurreko gastu eta sarrera bera zehaztu dute. Zor publikoa, berriz, 99.208 eurokoa da.

INBERTSIO HANDIENAK HIRIGINTZAN

Ohikoa den moduan, hirigintzako lanetan egingo dituzte inbertsio handienak. 1.066.255 euro inbertituko dituzte guztira 2003an; aurrekontuaren %38,4, hain zuzen ere, bideratuko dute inbertsioetara.

Hona hemen Udalak egingo dituen inbertsio aipagarrienetako batzuk: eskolan liburutegia egokitzeko 23.587 euro; Buztin-zurin etxebizitzak egiten diharduten ingurunea kudeatzeko 300.000 euro; Uzarragako zubia zabaltzeko 285.313 euro; industrialderako lurra erosteko 50.000 euro; eta igerilekuaren proiektua berritzeko 18.030 euro.



ARTXIBOA

Ohikoa den moduan, hirigintzako lanetan egingo dituzte inbertsio handienak.

Aurrekontuak eta inbertsioak batzordeka

BATZORDEA	AURREKONTUA	INBERTSIOA
Administrazio orokorra	328.388 €	8.350 €
Gizarte Segurantzza eta Babesa	311.845 €	13.200 €
Hezkuntza	84.789 €	23.587 €
Etxebizitza eta Hirigintza	1.245.463 €	915.287 €
Komunitate Ongizatea	182.352 €	—
Kultura	165.102 €	31.985 €
Kirolak	110.597 €	49.868 €
Liburutegia	43.332 €	5.944 €
Euskara	68.597 €	—
Nekazaritza	68.030 €	18.030 €

KULTURA

Gerbasiori, herriko gutuna eta bandera

Apirileko osoko bilkuran erabaki zuen udalbatzak Gerbasio Legorburu txistulariari herriko gutuna eta bandera ematea. Sari horrekin, herriaren izena zabaldu izana eta herriaren alde egingo lana eskertu nahi dio Antzuolako Udalak Gerbasiori. Ez dira asko izan Udalaren aldeetik sari hori jaso duten herritarrik; Kaxiano Ibargurennek eta Simon Artolazabalek, esaterako, jaso dute sari hori.

ZILARREZKO DOMINA ERE JASOKO DU

Euskal Herriko Txistularien Elkarteak iazko batzar orokorrean erabaki zuen Gerbasiori zilarrezko domina ematea, txistulari moduan egin duen lanagatik. Oraindik, baina, ez du domina hori jaso; maiatzaren 11n egingo diote omenaldia Antzuolan bertan, eta hantxe emango diote zilarrezko domina. Udalak ere egun horretan bertan emango dizkio gutuna eta bandera.

LABUR



KZGuneako ikastaroak hasi ditu talde batek, eta gainerakoek maiatzean hasiko dituzte

Aurreko astean hasi zuen erretiratuen taldeak Interneten gaineko ikastaroa KZGunean. Gainerako taldeendako ikastaroak Aste Santu osterako antolatuko dituzte.

Ikastaro orduetan izan ezik, Interneten doan nabigatzeko aukera ere eskaintzen du KZGuneak; ikastaroetako ordutegiak atean jarriko dituzte. Gogora ezazue, bestalde, Olanen etxeko bigarren solairuan jarri dutela KZGunea eta atzeko aldetik sartu behar dela. Hain zuzen ere, astelehenetik egubakoitzera egoten da zabalik, 16:00etatik 20:00etara.

Apirilaren 22an eta 23an umeendako jolasparkea jarriko dute Udal Pilotalekuan

Aste Santu osteko astean, Pazko Astean, hain zuzen ere, umeendako jolasparkea jarriko dute frontoian eta inguruan: puzgarriak, quad delakoak, trike delakoak eta motordun patinetak jarriko dituzte, besteak beste. Bi asteko oporraldia izanik, jolaserako aukera polita izango dute herriko umeek.



Taiferra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrun instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu



Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA



EAJ-Earen aurkezpena

Lehendabiziko aldiz aurkeztuko dira Antzuolako EAJ eta EA alderdiak batera udal hauteskundeetarako. Aurreko asteburuan jakinarazi zuen koalizioak hauteskundeotarako zerrenda.

Aurreko agintaldian bezala, Jose Anjel Zabalo aurkeztu du koalizioak alkategai; hona hemen gainerakoak: Dina Muxika, Iñigo Ramírez de Okariz, Jose Ignacio Beltrán, Basilio Ormazabal, Jose Luis Arantzeta, Gurutz Madariaga, Imanol Garmendia eta Ildefonso García./A.I.

LABUR

Udala UEMAn sartzea erabaki du udalbatzak

Apirileko osoko bilkuran udalbatzak UEMAn sartzea erabaki zuen, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean, alegia. Aho batez hartu zuten, gainera, erabaki hori; izan ere, zazpi zinegotzik hartu zuten parte osoko bilkuran eta guztiek eman zioten aldeko botoa proposamen horri. UEMaren helburua da bertako partaide diren udalean eta udalerrian euskararen erabilera ahalbideratzeko eta herriarren hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzuak eskaintzea.

Udal Euskaldunen Mankomunitatean sartu ahal izateko, bestalde, beharrezkoa da, besteak beste, biztanleen %80tik gora euskalduna izatea, eta Antzuolak betetzen du baldintza hori.

1976an jaiotakoek irteera egingo dute Errioxara

1976an jaiotakoek Errioxa aldera egun-pasa joateko irteera antolatzen dihardute datoren maiatzaren 17rako. Arabako Errioxako Bastida herriara joango dira lehenengo, eta hantxe bazkalduko dute. Arratsaldean, berriz, Gasteizera joango dira. Maiatzaren 3ra arte dago izena emateko aukera, honako telefono zenbakira deituta: 655 71 40 40.

HERRITARREN HITZA / Iñigo Ramírez de Okariz · Irakaslea

Txasioneakua

Talleres Anzuola-k Bergarako bidea hartu zuenetik, Txasioneakua bezala ezagutzen dugun etxeak ez dauka itxura onik. Badira hilabete batzuk abisuren bat edo beste pasatu zirela udalera, teilatu ertza airean ikusten zelako eta herritarrentzat arriskuan zegoelako. Egun batean, salgai jartzen zuen karteltxo bat ere ikusi ahal izan genuen, baina badira hilabete batzuk iragarki hori desagertu zela, norbaitek erosi zuen zurrumurruarekin.

Hala ere, aipatutako arazo horren aurrean erosle berriek

edo hartu zuten erabakia drakonia noa izan zen; izan ere, egun batean kalera begira zeuden kapirixo ikusgarriak moztuta azaldu ziren, teilatuko teilak hankaz gora jarri ziren eta, aldenik alde, ez dakit ba, etxearen hormak edo babestu nahian, plastikozko tira luze bat ipini zuten.

Berehala konturatu nintzen jugadaz; egin zutena itxura



“Txasioneako etxeak ez du zutik luze iraungo”

ematea besterik ez zela. Txasio bezalako etxeak molestoak dira askorentzat. Etxe honek, nahiz eta katalogatuta ez egon, XVIII. mende-ko egitura eta egurrak dauzka. Baina hau bezalako antzinako etxeak ez dira errentagarriak: zaharberritzea eta egungo etxebizitza motara egokitzea

desegokia eta garestia izaten direnez, hobe beste bide batzuk hartzea erosoak ez diren etxe

hauek desagerrarazteko.

Argi dago mutilatuta laga duten etxe honek ez duela denbora asko egoera honetan iraungo. Teilatuko babesa kenduta, eta udazken eta neguko euriekin dagoeneko hormak bustita, ez du zutik luze iraungo, laster batean jausteko zorian jarrit. Ondorengo sumatu dezaket: hondamendi agiria jasoko du eta ... botatzeko baimena lortu.

Etxegintzan, espekulazioa noiznahi erabiltzen den hitza da. Gure herrian, Txasioneakua, horren adibide triste bat ez ote dugun susmoa daukat.

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

EGAÑA
Era guztietako artoz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatutako eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

II Harizki SUKALDEKO ALTZARIAK

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

AITZ-GARBI
taberna jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

MUJKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

Goibekokale

ELGETA / Eguaztena / 2003ko apirilaren 16a / 139. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Etxebizitzak eraikitzeke asmoa bazegoen ere, oraingoz bere horretan lagako dituzte Larrabiltzearrako lurak.

Larrabiltzearra landa lur izatea proposatu dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Hirigintza, obra eta ingurugiro batzordeak bilera izan zuen joan den astean, eta arau subsidiarioak berrikusi ostean, Larrabiltzearra orain dagoen modura uztea proposatu zuten. Landa lurra da, eta urbanizazioa pentsatu bazuten ere, oraingoz ez da etxerik egingo.

Arau Subsidiarioak berrikusten eta egokitzen ari dira Udalean azken aldirian. Herritarren aldetik hainbat alegazio jaso ondoren, arauen behin behineko onarpena egin dute eta azken erabakia plenoan hartuko dute. Honela, Elgetako etorkizuneko arau subsidiarioak lehen bailehen finkatzea da udalaren nahia.

Larrabiltzearra landa lur modura lagatzea izan da bileran egindako proposamenetako bat. Izan ere, ingurune hau urbanizatzeko asmoa zeukaten, baina oraingoz, bertan etxeak ez egiteko proposamenak hartu dio aurrea etxeak eraikitzeke proiektuari.

Hainbat herritarren sinadurak jaso dituzte lur hauetan etxe-

ak eraikitzeke nahiaren aurkako jarrera azalduz, eta oraingoz hirigintza, obra eta ingurugiro batzordean proposamena onartu dute.

SESTOALDEA

Larrabiltzearra ez da landa lur izendapena mantenduko duen herriko gune bakarra. Sestoaldea gainen ere etxebizitza gehiago eraikitzeke asmoa zegoen, baina hainbat arrazoi direla medio ez du proiektuak aurrera egingo.

Besteak beste, oraindik egiteko dagoen saihebidia inguru horretara aterako dela aurreikusitako proiektua oraindik Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalaren esku jarri ez badu ere, sesto gainen etxebizitzak eraikitzeko, lurak hipotekatuko lirateke eta errepidea bertatik bideratzeko aukerak murriztu egingo lituzkete.

Bestalde, etxebizitzak eraikitzeke proiektu bat baino gehiago dago martxan herrian. Torrealdean, 60 etxetik gora eraikitzeke proiektua martxan da eta Uruburun eta Artekalen ere etxeak egingo dituzte. Beraz, oraingoz beharra hain handia ez dela ikusita, bi gune horiek landa lur izen-

datzeko proposamena egin dute bileran. Aurrerantzean, sortu litezkeen beharren arabera, Larrabiltzearra edo sesto gainbealako guneak urbanizazioa erabaki dezaketarik ere ez dute baztertzen.

ARAU SUBSIDIARIOAK

Arau Subsidiarioak aldatzeak etxebizitzaren arloan izango du eraginik nabarmenena. Alegazioen artean lokal komertzial batean etxebizitza egiteko eskaria dago. Bileran ez dute eskarria onartu, ordea. Izan ere, arau subsidiarioak aldatzekotan beharren arabera moldatu behar dira eta oraingoz etxebizitza arazorik ez dago herrian. Gainera, lokal komertzialak etxebizitza bihurtzea moda kontua dela arrazoitu dute.

Bestalde, egungo arauen arabera etxebizitza proiektu guztietan betetzen dira eraikuntzetara iristeko baldintzak. Beraz, ez dago aldaketak egin beharrik.

Honela bada, arau subsidiarioak behin betiko onartzen direnean, Larrabiltzearrako eta sestoaldeko lur sailek landa lur izendapena mantenduko dute.

KIROLA

Herriko bi talde areto futbol txapelketan

I.A.

Joan den apirilaren 12an hasi zuen bere ibilbidea aurtengo areto futbol txapelketak. Ekainaren 14ra bitartean liga eran jokatuko dute izena eman duten 7 taldeek eta sailkatzen direnek final erdiak jokatuko dituzte. Finala ekainaren 28an izango da.

Zazpi taldek eman dute izena aurtengo areto futbol txapelketarako. Horietatik bi Elgetako taldeak dira, Txapela eta La Kokotxa ekipoak, hain zuzen ere.

Ekipoek ekainaren 14ra arteko larunbat arratsalde guztietan, 15:00etatik 18:00etara bitartean lehiatu beharko dituzte indarrak. Larunbatero, beraz, hiru partidu

jokatuko dira. Lehen jardunaldia joan den larunbatean jokatuko bazen ere, bi partidu bertan behegeratu ziren eta apirilaren 26an edo maiatzaren 3an jokatuko dituzte. Liga bukatuta sailkatzea lortzen duten taldeak finalerdietan izango dira eta azken faseko partiduak ekainaren 21ean eta 28an jokatuko dituzte.

PILOTA

Bestalde, martxan da Debagoieneko esku pilota txapelketa ere. Bertan, 7 bikote ari dira liga eran jokatzen eta horietako bat Angel M. Ibarluzea eta David Peñalver elgetarrek osatutakoa da. Elgetarrak maiatzaren 31ra arte txapelketan irautea dute helburu, egun horretan jokatuko baita finala.



Guztira zazpi taldek eman dute izena txapelketan jokatzeke.



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

ELKARRIZKETA

MARIA ELENA EZTENAGA/LIBURUTEGIKO ARDURADUNA

“Liburuak kalera aterako ditugu Liburuaren Egunean”

I.A.
Irakurzaletasunak bultzatu-ta hasi zen liburutegian lanean Maria Elena Eztenaga orain dela 25 urte inguru. Liburuaren Eguna apirilaren 23an dela-eta, Maria Elenarekin egin dugu berba herriko irakurzaletasunaren gainean.

Elgetan irakurzaletasun handia dago?

Herri guztietan moduan, hemen ere badaude herritar batzuk liburuzale amorratuak direnak; horiek 20 inguru izango dira. Beste batzuk, berriz, irakurtzea ez dute batere gustuko, eta liburu onak gomendatu arren ez dute irakurtzen. Horiek telebista ikusten edo beste zerbaitean ematen dute denbora librea. Zein motatako liburuak dituzte gogokoak?

Azkenaldian oinarri historikoa duten liburuak eskatzen dizkidate batez ere. Hau da, era berean entretenitzeko eta ilustratzeko balio duten lanak. Hor daude, esaterako, Toti Martínez de Lezearen liburuak. Emakumezko

nobela arrosak ere gustatzen zaizkie; gizonezkoek, berriz, abenturazko liburuak dituzte gustuko. Narratiba lanek eta saiakerek, bestalde, ez dute inolako arrakastarik. Baina moda kontua ere bada. Izan ere, orain dela urte batzuk Stephen King ospetsuaren zientzia-fikziozko eleberriek izugarritzko arrakasta izan zuten; orain, aldiz, ez dituzte hainbeste eskatzen. Hori gaztelaniazkoegi dagokienez. Euskarazko liburuen kasuan, lan entzutetsuenen bila etortzen dira.

Zein jende etortzen da liburutegira?

Denetarikoak dira gure bezeroak. Gehienak txikitatik hasten dira gurasoekin etortzen eta 16-17 urterekin etenaldia egiten dute,

ikasketengatik-edo. Irakurtzeaz aspertuta daudelako izan daiteke. Gero, 25 urtetik gora, berriro etortzen hasten dira. Dena dela, erretiratuak oso gutxi azaltzen dira. Bere garaian ez ziren irakurtzera ohitu, eta orain erakurtzea da gure erronka.


Irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzarik egiten duzue liburutegian?

Bai, umeekin batez ere. Ipuin kontalarien saioak, idazkera ikastaroak... egiten ditugu. Nik neuk ere inoiz irakurri izan dizkiet ipuinak umeei. Txikitatik ohituz gero, liburutegirako joera hartzen dute eta irakurtzeko gogoia pizteko ere modu egokia izan daiteke.

Modu berezian ospatuko duzue Liburuaren Eguna?

Azken urte hauetan egin dugun moduan, aurrean ere, liburuak herritarrei gerturatzeko asmoz, liburutegia herriko plazara aterako dugu. Hala, zahar-kituta geratu diren liburuak edo hondatu egin direnak jendeari banatuko dizkiogu, liburutegian lekua egiteko. Bestalde, iritsi berriak diren nobedadeak ikusgai jarriko ditugu.

“Erretiratuak ez dute irakurtzeko ohiturarik, eta horiek erakurtzea da gure erronka”



I.A.



Erramuen bedeinkazioa

Aste Santuko liturgia erramuen bedeinkazioarekin hasten du Elizak. Elgetan ere, ohitura zaharrari jarraituz, erramuz eta ereinotzez egingako sortak bedeinkatu zituzten joan den domekan elizako arkupeetan. Txikienez sorta dotoreak prestatu zituzten okasiorako, eta nagusiak, berriz, esku artean erramu eta ereinotz hostoak zituztela joan ziren elizara. Abadearen otoitzekin bedeinkatu ostean, etxeko atarrietan eta soloetan jarriko dituzte, babesa eman diezaieten./I.A.

LABUR

Kiroldegia eta pilotalekua itxi egingo dituzte zenbait egunean, margotzeko

Apirilaren 22tik 26ra arte pilotalekua itxita egongo da margotze lanak direla-eta. Bestalde, kiroldegiko pasabidea eta gimnasioa apirilaren 28tik 30era bitartean margotuko dituzte eta itxita egongo dira instalazio guztiak. Hortaz, abian dauden txapelketetako kirolariak bakarrik erabiliko dituzte aldagelak. Gimnasia eta aerobik saioak eten egingo dituzte apirilaren 22tik maiatzak 5era arte.

Espaloia aretorako sarrera maiatzaren hasierarako asfaltatuko dute

Espaloira doan bidean obretan dihardute. Asfaltatu egingo dute, aretora emanaldiak egitera doazen taldeei sarrera errazteko. Udaletik esan digutenez, maiatzaren hasierarako lanak amaitzea espero dute. Sarreraren aldamenen aparkalekua egitea zen sarrera egokitzeko beste asmoetako bat, baina oraingoz ez dute aparkalekurik izango, berdegunea baizik. Bide batez, ingurua argizatze lanetan ere hasiak dira, eta hiru farola ipiniko dituzte.

DEPILAZIOA LASER BIDEZ

Erizaina: Sonia Simón
OLT: Iratxe Aiarzaga
Medikua: Gabriel Hernández

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK
ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

Kiromasajea • Reflexologia • Hidromasajea • Kirol masajea • Solariuma • Drenaje linfatikoa • Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



Jesus Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK

Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19
KONPONKETAK
SUKALDE
ETA BAINUGELETAN



BOLINAGA
METALAK

SALBADOR 7
ELGETA 20690
GIPUZKOA
TEL: 943 76 80 64
FAX: 943 76 83 01

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Aranzadi
Ikastolako
umeak, 1972

Aste honetako erretratuan Aranzadi Ikastolako umeak agertzen dira. Argazkia Serafin Esnaola abadea zenak ateratakoa da, Aranzadikoek San Martzialera egindako irteera baten. On Serafinek gogoko zuen argazki-makinarekin ibiltzea, eta Super-8 formatuan irudi asko hartu zituen. On Serafin 1964an iritsi zen Bergarara eta 80ko hamarkadara arte San Antonioko ermitan jardun zuen.

Esan bezala, alboko argazkian Aranzadi Ikastolako ikasleak agertzen dira, 1972an. Orduan 6-7 urte izango zituzten argazkikoek. Ezkerretik eskumara:

Goian: Xabier Lijó, Josu Lazpiur eta Andoni Bollar (besteen artean atzerago ageri dena).

Aurrean: Imanol Arregi, Iñigo Ansuategi, Asier Madinabeitia, Jorge Tarrés, Joseba Moñux, Iñaki Muxika eta Iñigo eta Jaime Otazua bikiak.

Argazkia: Serafin Esnaola.



ADI, IRAKURLE!


Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA

Aitziturriko
ingurua

Ezkerreko argazkia Aitziturritik aterata dago, eta handik, besteak beste, Izkiñakua (Kanposeneko taberna zegoen bertan), Zubikua, Bolubarri, Albitsubaso eta Arizmendi baserriak antzematen ziren, besteak beste, 1960aren inguruan. Izkiñakua baserria 1973aren inguruan bota zuten eta Zubikua eta Bolubarri baserriak, berriz, 90eko hamarkadaren hasieran.



≈ 1960 Aitziturriko ortuak eta trenbidea zeudeneko argazkia. Atzean, San Antonabateko hainbat baserri (BUA, E. Elkoroberezibar).



2002 Aitziturriko industria pabiloiak eraikitzen hasi ziren 70eko hamarkadan. Amillagan ere hainbat enpresa kokatu dira ordutik hona.



Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21




DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

IPINTZA INSTITUTUAN BATXILERGOAK

BILERA INFORMATIBOA
apirilaren 29an, 19:00etan

AURREMATRIKULA
maiatzaren 5etik 9ra



MATRIKULA
ekainaren 30etik uztailaren 4ra



AURTEN DBH (ESO) BUKATUKO DUZUEN GAZTEOKI

Datozen egunotan (maiatzaren 5etik 9ra) Ipintza Institutuko batxilergoetan aurrematrikula egiteko aukera duzuela eta, aurkezpena gonbidatzen zaituztegu (ikasleok eta zuen gurasoak).

Alde batetik, LAGUNTZEKO ari garelako zuen etorkizun profesionala aukeratzeko, oraindik gazte bazarete ere. Bestetik, zuek GIDATZEKO gure eskaintzen ditugun aukera zabalak azalduz, denon gustuei erantzuna emanez, eta etorkizunarekin bat eginez, zubiak eraikiz.

Goian aipaturikoak gure proiektu sendoan oinarritzen dira eta ikastetxearekin batera ezagutu ahal izango dituzue.

HOBETUNTZAREN BITARTEZO KALITATEAREN BIDEAN GOAZ

Gizarteari eskaintzen diogun zerbitzua hobetzeko asmoarekin eta kontuan harturik gaur on dena bihar hain on ez dela izango, IPINTZA BHIIn gure kalitate sistema garatzen eta ezartzen hasiak gara.

Plangintzan ekintza honi bi urteko epea jarri diogu inguruko beste lau ikastetxearekin batera, Hezkuntza Sailak antolatutako esperientzia pilotu baten.

GOIESKOLAKO PARTAIDEAK


Ipintza Institutuak Debagoieneko Euskal Eskola Publikoaren sarea osatzen du, ikastetxe bakoitzaren proiektu, baliabide, ezagutza, zerbitzu eta ahaleginak besteekin konpartitzen eta elkartzen, sare bat ikasleak hobeto hezteko.

Gaur egun lankidetzara oso garrantzitsua izanik, hori bultzatzea eta gurasoen, ikasleen eta irakasleen arteko koordinazioa hobetzea da gure helburutariko bat, aniztasunaren balio positiboak berreskuratzea, pentsamendu eta izaera ezberdinak errespetatzea eta denon eskubideak jabetzen erakustea da gure lana.

ETORKIZUNARI BEGIRA

Gaur egungo gizartearen prestakuntza/ikaskuntza prozesuak eta, noski, hezkuntza eta prestakuntza sistemak oso garrantzitsuak dira.

Gure ikastetxeak kalitatea eta eraginkortasuna hobetu nahi du, eta horretarako Foru Aldundiaren laguntzarekin ekipamendu digitala ahalegina egiten ari da, ikasketa kontzeptua garatzeko eta teknologia berriak gure egungo klaseetan erabiltzeko. Berrikuntza eta esperimentazio jarduerak planteatzen eta garatzen bidean jarriko gara.



IPINTZA INSTITUTUKO ESKAINTZA

DERRIGORREZKOAK	
1	2
Gaztelera	Gaztelera
Euskara	Euskara
Ingelera	Ingelera
Filosofia I	Filosofia II
Soinketa	Historia
Erljio/alter.	

MODALITATEA	Tecnologia		Natur Osasun Zientziak		Giza Gizarte Zientziak	
	1	2	1	2	1	2
AUKERAKOAK	Matematika I	Matematika II	Matematika I	Matematika II	Giza Mate I	Gizamate II
	Fisika Kimika	Fisika	Fisika Kimika	Fisika	Ekonomia I	Ekonomia II
	Tecnologia I	Tecnologia II	Biologia-Geologia	Biologia	Latin I	Latin II
	Marrazketa I	Elektroteknia	Marrazketa I	Kimika	Greziara I	Greziara II
		Mekanika		Marrazketa II	Historia Garaikidea	Geografia
		Marrazketa II		Lur		Artearen Historia
						Musikaren Historia

Informatika -- Erdal Lit. Garaikidea -- Euskal Lit Garaikidea
Zientzia teknologia eta gizarte -- Euskal Herriaren Historia
Frantsesa -- Matematikako Laborategia*
Gorputz ariketa, Aisia eta osasuna*

Fabrikazio Mekanikako Teknikak* Sistema Automatikoak* Ordenadore bidezko marrazketa *	Laborategiko Teknikak Tecnologia I Anatomia* Geologia* Ordenadore bidezko marrazketa* Mekanika*	Administrazio eta Gestio Prozesuak Psikologia eta Soziologia Antropologia
---	--	---

*Bigarren kurtsuan ematen dira.

- Komunak, Batxilergo guztientzako berdinak dira
- Modalitatekoak

- Modalitatekoak 3 edo 4 hartu behar dira.
- Aipatutako 3 edo 4 horien artea posible da kurtsatu behar ez duzun Batxilergoko modalitateko bat hartzea.

- Aukerakoak

- Modalitateko 3 hartzen badira, aukerako 1 hartu behar da.
- Modalitateko 4 hartzen badira, aukerakorik ezain da hartu.



IPINTZA INSTITUTUA
Boni Laskurain 19
Tel: 943 76 31 42 Faxa: 943 76 06 80
www.goieskola.net/ipintzabhi



SAN MARTIN
BERGARAKO

IPINTZA
IKASTETXE

M. ALTUNA
PUBLIKOAK

GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak



AGIRRE MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

UGARTE AROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek



EI izarra elektrizitatea

Zubieta 10
943 76 54 10
943 76 19 99
943 76 10 60

- Orotariko instalazio elektrikoak



Informatika aholkulariak

Eguzki auzoa
5, behea
ANTZUOLA
943 76 65 13
F 943 76 65 14

- Gremio guztietarako programazioa
- Ekipo osoa instalatuko dizugu

ARISTEGI-TOLA ITURGINTZA



Bolu 26
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak

UREDERRA ITURGINTZA

51 p.k.
686 943 918

- Iturgintza
- Berogintza
- Aire egokitua
- Konpondu eta saldu

BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria

